

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>ortzadar</b>	«Beste aingeru ahaltzu bat ikusi zuen zerutik jaisten, hodeiz inguratua: <b>ortzadarra</b> zuen buru inguruan, aurpegia eguzkia bezain distiratsua...»
<b>deiadar egin</b>	« <b>Deiadar egin</b> zuenean zazpi trumoik jo zuten burrunba.»
<b>distiratsu</b>	«Beste aingeru ahaltzu bat ikusi zuen zerutik jaisten, hodeiz inguratua: ortzadarra zuen buru inguruan, aurpegia eguzkia bezain <b>distiratsua</b> ...»
<b>habe</b>	«...aingeru ahaltzu bat ikusi zuen (...): ortzadarra zuen buru inguruan, aurpegia eguzkia bezain distiratsua eta zangoak suzko <b>habeak</b> bezalakoak.»
<b>zirrara</b>	«Gauak <b>zirrara</b> zekarren.»
<b>oldartsu</b>	«Geldiezina eta <b>oldartsua</b> , hilabete eskasa zen hamazortzi urte bete zituela, eta ospatu egin nahi zuen.»
<b>goitzen</b>	«Hasieran haserretu egiten zen <b>goitzen</b> hori adituz gero, baina denborarekin Julenek berak ere normalizat hartzen zuen ja.»
<b>jitoan</b>	«Paperetatik irteteak, ordea, iparrorratzik gabeko marinel bihurtzen zuen askotan. Eta <b>jitoan</b> sentitzen zen.»
<b>ziurgabetasun</b>	« <b>Ziurgabetasunaren</b> estualdiak hartu zituen Alexen lagunak.»
<b>tematu</b>	«—Eta dirua? Gainera hori: ez dugu dirurik! <b>–tematu</b> zen Haritz, aitzakiaren baten bila.»
<b>geisha</b>	«...bere ibilera delikatu hura zela medio, panpina itxura zuela aurpegiratzen zioten askotan. <b>Geisha</b> hauskor baten moldea.»
<b>hauskor</b>	«...bere ibilera delikatu hura zela medio, panpina itxura zuela aurpegiratzen zioten askotan. Geisha <b>hauskor</b> baten moldea.»
<b>urardotu</b>	«Baina etsita zegoen ameslari <b>urardotua</b> baizik ez zela, nahi eta ezinaren irudi bakartia.»
<b>aztoratu</b>	«Alazne aurrean jarri zitzaion, <b>aztoratu</b> antzean.»
<b>txintik ere ez</b>	«...irudizko kreamilera batez itxi zuen ahoa. — <b>Txintik ere ez</b> . Edo saiatuko naun behintzat.»
<b>zirto</b>	«Baina ez bakarrik fisikoa: mutilekin lehiatzen ohitua, beti zeukan <b>zirtoa</b> edo ironia gertu.»
<b>zapuztu</b>	«Arantxak ez ote zuen (...) borroka dialektiko batean amaituko, eta berak Imanolekin hitz egiteko zeukan asmoa <b>zapuztuko</b> .»
<b>gertu</b>	«Baina ez bakarrik fisikoa: mutilekin lehiatzen ohitua, beti zeukan zirtoa edo ironia <b>gertu</b> .»
<b>imintzio</b>	«—Zain? Zeren zain? Hire zain? –barre egin nahi izan zuen Alexek. Erdibideko <b>imintzio</b> batean geratu zitzaion.»
<b>ba al gara edo zer?</b>	«—Alex! –Imanolen ahotsa zen. Autotik ari zitzaion—. Alex: <b>ba al gara edo zer?</b> Ez dugu irratiarekin asmatzen!»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>hausnarrean</b>	«Bi segundo egon zen <b>hausnarrean</b> , bilatzen jarraitu ez jarraitu.»
<b>patatakoa eman</b>	«—Joder —asmatu zuen esaten Julenek—. Ba, hurrengoan abisatu; <b>patatakoa emango</b> ziguk eta.»
<b>jarraitu ez jarraitu egon</b>	«Bi segundo egon zen hausnarrean, bilatzen <b>jarraitu ez jarraitu</b> .»
<b>soslaia</b>	«Itzal trinkoz beteta zegoen lekua. <b>Soslaian</b> begiratu gero, forma bizidunak zirela pentsa zitekeen.»
<b>ile-xerlo</b>	«Hamaika koloreko ile-zintari ukitu batzuk eman zizkion. <b>Ile-xerlo</b> bihurri batek ihes egin zion.»
<b>grina</b>	«Pizturiko odolaren mintzaira entzuten hasia zen berriro, eta bazekien zer esan nahi zuen horrek: <b>grinak</b> zirikatutako itsualdia; arriskua.»
<b>xaxatu</b>	«—Hirekin jardutea alferrik duk, hori bazekiagu —Alexek <b>xaxatu</b> egin nahi zuen—. Baina gero damutu egingo zaik.»
<b>carpe diem</b>	«— <b>Carpe diem!</b> —oihukatu zuen. Hainbat esalditako errepertorioa zeukan gordeta horrelako egoeretarako. Bere burua motibatuzko erabilitako leloak
<b>damutu</b>	«—Hirekin jardutea alferrik duk, hori bazekiagu —Alexek xaxatu egin nahi zuen—. Baina gero <b>damutu</b> egingo zaik.»
<b>lelo</b>	«—Carpe diem! —oihukatu zuen. Hainbat esalditako errepertorioa zeukan gordeta horrelako egoeretarako. Bere burua motibatuzko erabilitako <b>leloak</b>
<b>tempus fugit</b>	«Tira, Bronto. <b>Tempus fugit!</b> »
<b>ospa egin</b>	«Sartu orduko aldatu zitzaien aurpegia alabaina, eta zeramaten kemen guztiak berehala <b>egin zien ospa</b> .»
<b>zer gerta ere</b>	«Susmo txarra zeukan neskak, baina ez zuen ezer esan nahi, <b>zer gerta ere</b> .»
<b>zurruntasun</b>	«Emozioak jota zegoen, abentura erromantiko baten erdian, eta ez zuen ulertu Amaia eta Arantxaren bat-bateko <b>zurruntasuna</b> .»
<b>itsumustuan</b>	«—Joño! —jaurti zuen. Serio jarri zen <b>itsumustuan</b> eta neskari jaregin zion une batez—. Imanol?»
<b>jaregin</b>	«—Joño! —jaurti zuen. Serio jarri zen itsumustuan eta neskari <b>jaregin</b> zion une batez—. Imanol?»
<b>herratu</b>	«Gorila baten moduan-edo pentsatu zuen Imanolek, hari begira; gorila <b>herratu</b> eta nahasi baten moduan.»
<b>bainoago</b>	«Leku baketsuagoa izango zen hura, iritzi zion, eta Alaznek hori beharko zuen, ziur asko, tabernetako iskanbila <b>bainoago</b> .»
<b>iritzi (zerbaiti)</b>	«Leku baketsuagoa izango zen hura, <b>iritzi</b> zion, eta Alaznek hori beharko zuen, ziur asko, tabernetako iskanbila bainoago.»
<b>iskanbila</b>	«Leku baketsuagoa izango zen hura, iritzi zion, eta Alaznek hori beharko zuen, ziur asko, tabernetako <b>iskanbila</b> bainoago.»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>kutun</b>	«Hire osaba ez duk baboa. "Ba al dakizu, <b>kutuna</b> ?" –Imanolen osabaren sudur-ahotsa antzeratu zuen.»
<b>antzeratu</b>	«Hire osaba ez duk baboa. "Ba al dakizu, kutuna?" –Imanolen osabaren sudur-ahotsa <b>antzeratu</b> zuen.»
<b>babo</b>	«Hire osaba ez duk <b>baboa</b> . "Ba al dakizu, kutuna?" –Imanolen osabaren sudur-ahotsa antzeratu zuen.»
<b>txorimalo</b>	«"Erabateko <b>txorimaloa</b> ", pentsatu zuen Imanolek, zeharka begiratu. Ukalondo ez eman zion Juleni, tipo hura begiz jotzeko.»
<b>begiz jo</b>	«"Erabateko txorimaloa", pentsatu zuen Imanolek, zeharka begiratu. Ukalondo ez eman zion Juleni, tipo hura <b>begiz jotzeko</b> .»
<b>kiboa atera</b>	«—Mesalina? – <b>kiboa atera</b> zitzaien Imanoli izena errepikatzean.»
<b>farfuitatu</b>	«—Mesalina –esan zuen neska—. ¿No te gusta? —Sí, sí. Está bien. Bien – <b>farfuitatu</b> zuen Imanolek.»
<b>kitzikatu</b>	«Haren itzal <b>kitzikatua</b> handiagotu eta txikiagotu egiten zen, bilakaera etengabea, oraintxe gela erdia hartuz, oraintxe erabat ezkutatu.»
<b>muturtu</b>	«—Noski –emakumea jaiki, eta gelatik irten zen. Bizitasunez eta <b>muturturik</b> . Julenek logelara sartzen entzun zuen.»
<b>irtetear egon</b>	«Haren atzetik <b>irtetear egon</b> zen. Baina pentsatu zuen hobe zuela geldirik egon. Barealdia itzuli bitartean, behintzat.»
<b>behintzat</b>	«Haren atzetik irtetear egon zen. Baina pentsatu zuen hobe zuela geldirik egon. Barealdia itzuli bitartean, <b>behintzat</b> .»
<b>barealdi</b>	«Haren atzetik irtetear egon zen. Baina pentsatu zuen hobe zuela geldirik egon. <b>Barealdia</b> itzuli bitartean, behintzat.»
<b>ahitu</b>	«Asko <b>ahiturik</b> zeuzkan eternitateak. Barneak tenk egiten zion, eta haustear sentitzen zen.»
<b>auresangarri</b>	«Hain ezagunak egiten zitzaizkien garai batean enigma paregabeak zirenak; hain <b>auresangarriak</b> askotan.»
<b>tenk egin</b>	«Asko ahiturik zeuzkan eternitateak. Barneak tenk egiten zion, eta haustear sentitzen zen.»
<b>ume mokordo</b>	«Munduan bera beste inor ez zegoela uste zuen <b>ume mokordoren</b> bat, akaso.»
<b>bihozkada</b>	«Zerbait izugarria gerta zitekeen <b>bihozkada</b> zeukan. Zer, ordea?»
<b>zaldar</b>	«Poesiaren lore urdinak <b>zaldarrekin</b> batera galdu zituen. (...) Eta bizitzaren balizko poesia, trasteleku ilunean baztertua.»
<b>balizko</b>	«Poesiaren lore urdinak zaldarrekin batera galdu zituen. (...) Eta bizitzaren <b>balizko</b> poesia, trasteleku ilunean baztertua.»
<b>trasteleku</b>	«Poesiaren lore urdinak zaldarrekin batera galdu zituen. (...) Eta bizitzaren balizko poesia, <b>trasteleku</b> ilunean baztertua.»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>prozac</b>	«Egin behar zuena egiten zuelako konfiantzak <b>prozac</b> guztiak baino botere handiagoa zeukan.»
<b>mira egin</b>	«Mirariren gorputzaren <b>mira egin</b> zitzaion atoa. Mirariren azal sotilarena.»
<b>behingoz</b>	«Ai, Julen! Mesedez, utzidazu lo egiten. <b>Behingoz</b> .»
<b>atoan</b>	«Mirariren gorputzaren mira egin zitzaion <b>atoan</b> . Mirariren azal sotilarena.»
<b>sotila</b>	«Mirariren gorputzaren mira egin zitzaion atoa. Mirariren azal <b>sotilarena</b> .»
<b>marraska</b>	«Agian animalia larrutzen ariko ziren, botatzen zituen <b>marraskengatik</b> . Ez zen lehenengo aldia izango. Aingerutxoak.»
<b>zupada</b>	«Imanolek irribarre egin zuen. <b>Zupada</b> bat eman zion porroari.»
<b>gaixotasunak jota</b>	«— Amodioaren <b>gaixotasunak jotakoari</b> , dena nahasi!»
<b>alde</b>	« <b>Aldea</b> , alde ia bakarra, hauxe duk: ostiakoa hartzeko prest hagoen edo ez.»
<b>txapa merke</b>	«Joder. Hori duk hori <b>txapa merkea</b> .»
<b>atezuan egon</b>	«— Honbre, Imanol, zer... moduz? Alazne <b>atezuan</b> zegoela iruditu zitzaion mutilari.»
<b>aurrerakin</b>	«...etorri zitzaion gogora (...) beldurrezko film bateko <b>aurrerakin</b> gordina balitz bezala...»
<b>iradoki</b>	«Antza denez, eta <b>iradoki</b> didanez, erdi haserre edo gelditu zituan.»
<b>alamena eman</b>	«...eta saiatu egin behar nintzela sentitu nian. Kristoren <b>alamena eman</b> nioan. Egundoko txapa.»
<b>egundoko</b>	«...eta saiatu egin behar nintzela sentitu nian. Kristoren <b>alamena eman</b> nioan. <b>Egundoko</b> txapa.»
<b>pusketaka</b>	«Mirari garagardo botilaren etiketa pusketaka kentzen ari zen.»
<b>konturatzera</b>	«Egun gutxi batzuk izango ditun. Lauzpabost edo. <b>Konturatzera</b> pasako ditun.»
<b>erronkari</b>	«Imanolek min handia egin zidalako –begirada jaso zuen, ia <b>erronkari</b> .»
<b>apeta</b>	«...katana bat (...) Mirariren <b>apeta</b> hippyetako –edo ekialdetarretako, edo zena zelako– beste bat.»
<b>yin eta yang</b>	«Alex. Gaua eta eguna, hotza eta beroa, <b>yin eta yang</b> . Maremagnum eroa eta galgarria.»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....  
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.  
 Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>hizpide</b>	«Bai –esan zuen Mirarik. Ez zen bere buruaz fio; beste <b>hizpide</b> bat behar zuen, ezkutatzeko–. Nola zen herria?»
<b>galgarri</b>	«Alex. Gaua eta eguna, hotza eta beroa, yin eta yang. Maremagnum eroa eta <b>galgarria</b> .»
<b>doi-doi</b>	«Han ez zegoen bazterterik. Auto bakarra jaitsi zitekeen, eta <b>doi-doi</b> . Nolanahi ere, arazorik gabe iritsi ziren herrira.»
<b>zazpi-zazpiak</b>	«Orduan aztertu zuen. <b>Zazpi-zazpiak</b> ziren.»
<b>gaumin</b>	«Oraindik ez ziren zazpiak, baina ia <b>gaumina</b> ematen zuen: oso laino beltzak zebiltzan.»
<b>barrenkor</b>	«Hegada baten soinua entzun zen; txilio <b>barrenkorra</b> , ondoren. Galdutako kaioren bat, agian.»
<b>txolarre</b>	« <b>Txolarre</b> suizida bat ia lurra jotzeraino amildu zen, bertikalean eta ziztuari, baina azken unean bizirik irautea erabaki zuen, nonbait, eta zerurako bidea .»
<b>nonbait</b>	«Txolarre suizida bat ia lurra jotzeraino amildu zen, bertikalean eta ziztuari, baina azken unean bizirik irautea erabaki zuen, <b>nonbait</b> , eta zerurako bidea .»
<b>segituan</b>	«...ibilaldi laburra zuten Erdialdeko geralekutik. <b>Segituan</b> iritsi ziren.»
<b>artegatasun</b>	«Hala eta guztiz, <b>artegatasun</b> ukitu batez zabaldu zuen atea, zarataren baten zain-edo.»
<b>zabarregi</b>	«–Ez duk hori, Alex. Ostia –kexatu zen Imanol–. <b>Zabarregia</b> haiz batzuetan.»
<b>larrua jo</b>	«–Adibidez...? Ba, zer zakiat ba nik: noiz <b>jo</b> behar den <b>larrua</b> . Edo zein den unerik egokiena...»
<b>adarrrik ez</b>	«–Logikoa –oihukatu zuen Imanolek–. Logikoa? Joder, <b>adarrrik ez!</b> »
<b>lañotasun</b>	«Sarritan esaten zioten kontuz ibiltzeko galderak eta iruzkinak egiterakoan; bere <b>lañotasunean</b> (...) takateko mingarriak botatzen zituela.»
<b>takateko</b>	«Sarritan esaten zioten kontuz ibiltzeko galderak eta iruzkinak egiterakoan; bere lañotasunean (...) <b>takateko</b> mingarriak botatzen zituela.»
<b>iruzkin</b>	«Sarritan esaten zioten kontuz ibiltzeko galderak eta iruzkinak egiterakoan; bere lañotasunean (...) <b>takateko</b> mingarriak botatzen zituela.»
<b>nabar</b>	«Dantek irudikatutako infernuaren imitazio <b>nabar</b> eta malkarra.»
<b>malkar</b>	«Dantek irudikatutako infernuaren imitazio nabar eta <b>malkarra</b> .»
<b>alderrai</b>	«Lagunak taberna barruan zeuden, milaka zombiren artean zombi. Gorputz <b>alderraien</b> mareak lagun taldea fisionatu zuen...»
<b>furfuria</b>	«Denak denek kontra. <b>Furfuria</b> . Itsukeria.»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>toka</b>	«—Aizu, Alazne, zergatik egiten didazu orain zuka? —neskak <b>toka</b> utzi zuenean, mutila ere zukara pasatu zen, baina konturatu gabe hasieran.»
<b>zangalatraba</b>	«Bat-batean jaiki eta mutilaren izterren gainean eseri zen, <b>zangalatraba</b> . Imanolek ez zuen halakorik espero...»
<b>jalgi</b>	«Bere barne-katalogoko irribarre atseginenak eta alaienak <b>jalgitzen</b> saiatu zen Sonia, hitz egiten hastearekin batera.»
<b>hautemanezin</b>	«Alex zurrun geratu zen bat-batean. Dardara labur bat izan zuen. Segundo bat izan zen. Ia dardara <b>hautemanezina</b> .»
<b>partitu</b>	«Jendeak atzera eta aurrera bultzatzen zuen (...). Ukalondokada pare bat <b>partitu</b> behar izan zuen aurreratzeko.»
<b>abaildu</b>	«Alexek irribarre egin zuen. Irribarre <b>abaildua</b> . Nekatua.»
<b>pairamen eskaseko</b>	«— <b>Pairamen eskasekoa</b> haiz, e? Ai, hik ere Alex nahi huen —aurpegiratu zion Arantxak, irrikor. Ingurura begiratu zuen—. Non da Haritz?»
<b>marrantak jo</b>	«Ez zaitut sekula ikusi —erantzun zion berriro <b>marrantak jotako</b> ahotsak.»
<b>irrikor</b>	«—Pairamen eskasekoa haiz, e? Ai, hik ere Alex nahi huen —aurpegiratu zion Arantxak, <b>irrikor</b> . Ingurura begiratu zuen—. Non da Haritz?»
<b>zezeldu</b>	«—Hi mutila haiz, ezta? —lortu zuen <b>zezeltzea</b> . —Hara, hara. Eta?»
<b>katatonia</b>	«Haritzek ez zion erantzun. <b>Katatoniak</b> jota bezala zegoen.»
<b>txilibitu</b>	«Neskaren deskuidua edo nahita eginda, hori ez zekien, baina <b>txilibitua</b> barruan zen.»
<b>karranpa eragin</b>	«Alexen eskua gerrian sumatzeak <b>karranpa eragin</b> zion Mirariri. Ez zuen nahi.»
<b>agondu</b>	«Eta hori nahi zitenan leku hauek eraiki zituztenek —pixka bat <b>agondu</b> zen egurrezko bankuan.»
<b>errieta egin</b>	«Alexi behin eta berriro <b>errieta egiten</b> zioten arren, ez zuen sekula ikasten. Edo ez zuen ikasi nahi.»
<b>uhindu</b>	«Neskak ezin izan zuen barrenetik ateratzen zitzaion aldaken mugimendu <b>uhindua</b> ekidin. Mutilak Mirari masturbatzen jarraitu zuen pixka batean.»
<b>aldaka</b>	«Neskak ezin izan zuen barrenetik ateratzen zitzaion <b>aldaken</b> mugimendu uhindua ekidin. Mutilak Mirari masturbatzen jarraitu zuen pixka batean.»
<b>ekidin</b>	«Neskak ezin izan zuen barrenetik ateratzen zitzaion aldaken mugimendu uhindua <b>ekidin</b> . Mutilak Mirari masturbatzen jarraitu zuen pixka batean.»
<b>ildaxka</b>	«Hala eta guztiz ere, oskolaren bihotzak, haren koloreak, <b>ildaxkek</b> , akatsek edo gogortasunek...»
<b>tximista</b>	«Kanpoan, <b>tximista</b> batek zerua argiztatu zuen. Haren jarraian etorri zen trumoiak itzelezko karkara baten taxua izan zuen, latza eta mehatxuzkoa.»

Izen-deiturak: ..... Maila-taldea: .....

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: ..... puntu.

Zuzen:

Nota:

<b>trumoi</b>	«Kanpoan, tximista batek zerua argiztatu zuen. Haren jarraian etorri zen <b>trumoiak</b> itzelezko karkara baten taxua izan zuen, latza eta mehatxuzkoa.»
<b>karkara</b>	«Kanpoan, tximista batek zerua argiztatu zuen. Haren jarraian etorri zen trumoiak itzelezko <b>karkara</b> baten taxua izan zuen, latza eta mehatxuzkoa.»
<b>herbal</b>	«Hormak harri trinkoz egindakoak ziren. Argiek, hori eta <b>herbal</b> , kandela txiki baten ganora zuten beren ahulean.»
<b>enbarazuak joa</b>	«Batera eta bestera begiratzen zuen, baina begirada asko jaso gabe. <b>Enbarazuak joa</b> iruditu zitzaion Mirariri.»
<b>adur txar</b>	«...garai bateko adiskidantzaren izenean-edo <b>adur txarra</b> sumatu zuen berriro haren eta Imanolen artean.»
<b>guraize</b>	«Baina horrela behintzat ez din zalantzarako lekua uzten –bi eskuekin irudizko <b>guraizeak</b> antzeratu zituen. Airea ebaki zuen–.»
<b>zarratada</b>	«Une batez, <b>zarratada</b> sentitu zuen arima urratzen. Errealitatera itzultzera behartu zuen bere burua. Minak min.»
<b>hitano</b>	«Alaznek ere <b>hitanora</b> pasatzea erabaki zuen.»
<b>nahimen</b>	«Ez zuen sekula hainbestearaino galdu kontrola. Grina itsugarri batek erabat baliogabetu zion <b>nahimena</b> .»
<b>eldarnio</b>	«—Jakina –ulertu zuen Haritzek—. Eskizofreniak <b>eldarnioak</b> sorrarazten ditu.»
<b>zaurgarri</b>	«Imanolek indarrrik gabe gelditzen zela sentitu zuen une batez, geratzen zitzaion bizi-energiak leihotik ihes egingo balio bezala, <b>zaurgarri</b> eta suntsitzaile.»
<b>aladurak joa</b>	«—Ospitaleko ohean utzi nuen, bai. Eta gero, bai, <b>aladurak joa</b> egon nintzen denboraldi batez.»
<b>deliberatu</b>	«—Auskalo. Prestatzeko edo. Gainera, <b>deliberatu</b> nuen horixe zela onena. Zuei ezer ez esatea.»
<b>auskalo</b>	«— <b>Auskalo</b> . Prestatzeko edo. Gainera, deliberatu nuen horixe zela onena. Zuei ezer ez esatea.»
<b>zargalduta</b>	«Besteek, Alex zela jakin ez balute, ez zuketean ezagutuko. Zeharo <b>zargalduta</b> zegoen, zurbil-zurbil.»
<b>zeharo</b>	«Besteek, Alex zela jakin ez balute, ez zuketean ezagutuko. Zeharo <b>zargalduta</b> zegoen, zurbil-zurbil.»
<b>estutasun</b>	«Zuen artean <b>estutasuna</b> baino ez duk gelditzen, esan diat, baina noizean, oraindik ere, elkarren hutsa sentitzen duzue.»
<b>zer gerta ere</b>	«Lehenbailehen egin behar nian, <b>zer gerta ere</b> . Elkartu egin behar zintuztedan.»
<b>kalamatrika</b>	«—Ez nauk ari, ez. Eta kito <b>kalamatrika</b> . Gatozen harira...»
<b>lain</b>	«Kontzientzia arintzeko <b>lain</b> izan zen.»